

Gure enpresan 3 kanal desberdin erabiliko ditugu: komunikazio kanalak, salmenta kanalak eta banaketa kanalak.

KOMUNIKAZIO KANALAK:

Komunikazio kanalen bidez merkatuarekin eta kontsumitzaileekin konektatuko dugu gure marka. Hau lortzeko, gure markaren albistea eta propaganda egingo dugu, horrela gure enpresaren inguruan interesa sortzea lortuko dugu. Behin bezeroak gure produktua aukeratun, arreta emango diegu eta ahal dugun laguntza guztia eskainiko diegu, horrela gutaz konfidantza izateko eta eroso sentitzeko.

SALMENTA KANALAK:

Zerbitzua saltzeko momentuan erraz jarriko diegu gure bezeroei. Gure zerbitzua erosi nahi badute, gure bulegoan egingo dute. Galderaren bat izateko kasuan, telefonoz edo webgunearen bidez kontaktatuko digute eta guk gauzak argi azalduko dizkiegu. Ordaintzeko ere ez da zaila izango, transferentzia baten bidez ordainduko digute.

BANAKETA KANALAK:

Gure enpresaren kasuan, ez dugu zerbitzua zuzenean eskura emango, ezinezkoa delako. Zerbitzua gurekin bulegoan hitz egin ostean eta papel guztiak sinatuta egon ondoren jasoko dute. Guztia adostatu ostean etxea erabiltzeko prest egongo da eta bertako giltzak emango dizkiegu. Beraz lizentzia izango dute bertan bizi direla egiaztatzeko.